



GOIZUETAKO UDALA

Deialdia, Goizuetako Udalean sortzen diren beharrezane aurre egiteko, Administrari Laguntzaile lanpostua, C1 mailako derrigorrezko euskara-ezagutzarekin, aldi baterako kontratazioaren bidez betetzeko izangaien zerrenda hautaprobez bidez osatzeko

OINARRIAK

Lehenengoa. Deialdiaren xedea eta arau orokorrak

1.1.- Deialdi honen xedea da, hautaprobez bidez, administrari laguntzaile lanpostua aldi baterako kontratatuz betetzeko izangaien zerrenda eratzea, Goizuetako Udalean sortzen diren beharrak betetzeko.

1.2. Probak gainditzen dituztenek, izangaien zerrenda batean sartuko dira, Goizuetako Udaleko administrari laguntzaile lanpostuak aldi baterako betetzeko.

1.3.- Eratutako zerrenda indarrean egongo da 3 urteko gehienezko epean, eta alkatearen ebazpenaren bidez luzatu ahal izango da.

1.4.- Lanpostuak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileei dagozkien D mailako ordainsariak izango ditu.

1.5.- Lanaldia eta lan-ordutegia kasu bakoitzean aukeratzen den lanposturako ezarritakoa izango da, eta zerbitzuaren beharretara egokituko da uneoro, eta organo eskudunak edozein unetan aldatu ahal izango du beharrian horiek betetzeko.

1.6. Beren mailari eta kategoriari dagozkien eginkizunak beteko dituzte.

Bigarrena. Parte-hartzaileen betekizunak.

2.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako edo Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea izatea, edo Europako Erkidegoak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan sartzen den estatu bateko nazionalitatea izatea, betiere langileen zirkulazio askea aintzat hartzen badute.

Parte hartu ahal izango du, halaber, Espainiako nazionalitatea, Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea edo aipatutako Nazioarteko Tratatuaren aplikazio-eremuan sartutako estatuetako nazionalitatea duten pertsonen ezkontideak, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta horien ondorengoak eta ezkontidearen



GOIZUETAKO UDALA

ondorengoak ere, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak eta beren kontura bizi badira.

b) Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehienezko adina ez gainditzea.

c) DBHko graduatu-titulua, eskola-graduatu, lehen mailako lanbide-heziketako titulua edo titulu baliokide aitortua izatea, edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean lortzeko moduan egotea.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, dagokion baliozkotzea edo homologazioa egiaztatzen duen kredentziala eduki beharko da. Baldintza hori ez zaie aplikatuko Europako Erkidegoko zuzenbideko xedapenen babesean araututako lanbideen eremuan lanbide-kualifikazioa aitortu zaien izangaiei.

d) Dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasun fisikoa eta psikikoa izatea.

e) Funtzio publikoak betetzeko desgaituta edo etenda ez egotea, eta herri-administrazio baten zerbitzutik bereizita ez egotea.

f) Euskararen C1 ahazko eta idatzizko ezagutza izatearen justifikazioa, bai Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera titulua edo egiaztagiria aurkeztuz, Herri Arduralaritzaren Nafarroako Erakundeko zuzendari gerentearen irailaren 13ko 210/2010 Ebazpenean zerrendatutakoak, edo ofizialki baliokidea den titulazioa egiaztatuz, edo, bestela, euskararen ezagutza-probak eginez, oposizio-fasea egin aurretik.

2.2. Baldintza horiek guztiak agiri bidez egiaztatu beharko dituzte hautatuak izan eta aldi baterako kontrataziorako deitzen zaien pertsonak, adierazten zaien unean, dagokion kontratua formalizatu aurretik.

Agiri horiek aurkezten ez dituzten pertsonak – behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik – ezin izango dira kontratatu, eta beren jarduketa guztiak baliogabetuta geratuko dira, parte hartzeko eskabidean faltsutasuna egoteagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

2.3. Oinarri honetan jasotako betekizun guztiak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari buruzkoak izateaz gain, hautaketa-prozeduran eta kontratazio-aldian ere bete beharko dira



GOIZUETAKO UDALA

Hirugarrena. Eskabideak aurkeztea.

3.1. Eskabideak aurkezteko epea.

Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izanen da, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Deialdiaren testu osoa www.goizueta.eus web orrian egongo da eskuragarri. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izango da. Deialdian parte hartzeko eskabide-orria deialdi honen I. eranskinean argitaratutako ereduaren arabera izango da, eta izangaiek adierazi beharko dute eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkion baldintza guztiak betetzen dituztela.

3.2. Eskabidea aurkeztea eta formalizatzea.

Deialdian parte hartzeko eskabideak Goizueta Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, modu presentzialean (Herriko Plaza 4, 1. solairua, Goizueta, 31754 Nafarroa) edo Udalaren Egoitza Elektronikoren bidez (<https://egoitzaelektronikoa.goizueta.eus>).

3.3. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

3.3.1. Eskabidea aurkezteko unean, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, eskaneatuta:

- a) NANA edo identifikazio-agiri baliokidea.
- b) DBHko graduatu-titulua, eskola-graduatu, lehen mailako lanbide-heziketa edo baliokidetzat jotako titulua.
- c) Eskatutako euskara-mailaren gaitasun-agiria edo titulua, Hizkuntza Eskola Ofizial batek emana, edo ofizialki baliokidetzat aitortutako titulazioa.

3.3.2. % 33ko edo hortik gorako desgaitasun aitortua duten izangaiek parte hartzeko eskabidearekin batera aurkeztu beharko dute hori egiaztatzen duen agiria, organo eskudunak emana.

Era berean, probak egiteko denbora eta/edo baliabideak egokitzea eskatzen duten izangai desgaituek hala adierazi beharko dute beren eskabidean, eta horretarako prestatutako espazioan zehaztu beharko dute eskatutako egokitzapena edo eskatzen dituzten denbora eta/edo bitartekoen beharrezko egokitzapenak. Horretarako, izangaiek egoki irizitako agiriak aurkeztu ahal izango ditu eskabidea aurkezten duenean, 3.3.1. atalean ezarritakoaren arabera.



GOIZUETAKO UDALA

3.3.3. Agiri horiek aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuko, eta beren jarduera guztiak baliogabetuta geratuko dira, parte hartzeko eskabidean faltsutasuna egoteagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

3.3.4. Nahikoa izango da dokumentazioaren kopia sinpleak egitea, baina aurkeztutako datuak edo agiriak zuzenak ez badira edo faltsuak badira, erantzukizun penal, zibil edo administratiboak eskatuko dira.

Laugarrena. Izangaien onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Goizuetako Udaleko alkate-udalburuak ebazpena emango du onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzeko, eta zerrenda hori iragarki-oholean eta Goizuetako Udalaren web orrian argitaratzeko aginduko du.

4.2. Behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo hiru egun baliodunetan, baztertutako izangaiek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eta, hala badagokio, izan ditzaketen akatsak zuzendu.

4.3. Adierazitako epea igaro eta erreklamazioak ebatzi ondoren, alkate-udalburuak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta zerrenda hori iragarki-oholean eta Goizuetako Udalaren web orrian argitaratzeko aginduko du.

Argitalpen horretan, probak hasteko lekua, eguna eta ordua zehaztuko dira.

Baztertutako hautagairik ez badago, zuzenean onartuko da onartutakoen behin betiko zerrenda, eta Goizuetako Udalaren web orrian argitaratuko da.

4.4. Onartutako pertsonen zerrendan agertzeak ez du esan nahi zerrendan agertzen direnei ebazpen honen bidez deitutako prozeduran eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Hautaketa-prozedura gaingiduz gero, aurkeztu beharreko dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez dutela baldintzaren bat betetzen, interesdunek prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte, hargatik eragotzi gabe faltsutzeagatik izan ditzaketen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

4.5. Onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak argitaratuz gero, dagokien jakinarazpena egingakotzat joko da, Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikulua.

Bosgarrena. Epaimahai kalifikatzailea.



GOIZUETAKO UDALA

5.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Unai Miranda Berroeta, Goizuetako Udaleko alkatea.

Ordezkoa: eskuordetzen duen pertsona.

1. mahaikidea: Ana Maria Lujambio Echegui, Goizuetako Udaleko administrari laguntzailea

Ordezkoa: eskuordetzen duen pertsona.

2. mahaikidea: Maria Cristina Ursua Aizpurua, Aranoko Udaleko administrari laguntzailea

Ordezkoa: eskuordetzen duen pertsona.

3. bokala. Idoia Saralegui Ochotorena, Larraungo Udaleko ofizial administraria

Ordezkoa: eskuordetzen duen pertsona.

4. bokala-Idazkaria: Miriam Arocena San Miguel, Goizueta-Aranoko Udaleko idazkaria.

Ordezkoa: eskuordetzen duen pertsona.

Epaimahaia hautaproben aurretik eratu beharko da.

5.2. Auzitegia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo osoa, gutxienez, bertaratu gabe.

Kide anitzeko organoa behar bezala eratzeko eta jarduteko, mahaiburua eta idazkaria bertaratu beharko dira, edo, hala badagokio, haien ordezkioak. Ordezko pertsonak ere izendatu ahal izango dira ordezeko, baldin eta bigarren ordezkapena beharrezkoa bada.

5.3. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta deialdia egin duen organoari jakinaraziko diote, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako abstentzio-arrazoiak daudenean.

Era berean, izangaiek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte aipatutako inguruabarrak gertatzen direnean.

Parte ez hartzeko eta errefusatzeko lege ezarritako arrazoiak aplikatuz epaimahaiaren osaeran alaketaren bat gertatzen bada, onartutakoen eta baztertutakoen zerrendekin batera argitaratuko da.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarrien interpretazioari eta aplikazioari buruz sor daitezkeen arazo guztiak.



GOIZUETAKO UDALA

5.5. Epaimahaiak aholkulari espezialistak sartu ahal izango ditu bere eskumeneko jarduera guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari horiek epaimahaiarekin lankidetzan jardungo dute, eta beren espezialitate teknikoak betetzera mugatuko dira.

Seigarrena. Euskara proba.

6.1. Lehiaketa-oposizio fasea hasi aurretik, Hizkuntza Eskola Ofizialak emandako euskara-gaitasuneko titulua edo baliokidea ez duten hautagaiak euskara badakitela egiaztatu beharko dute. Horretarako, bi proba egin beharko dituzte, bata idatzizkoa eta bestea ahozkoa. Proba horiek, batera, gai edo ez-gai kalifikazioa izango dute. Ezagutza-maila C1 mailari edo baliokideari dagokiona izango da.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko (INAP-Euskarabidea) teknikariek egingo dituzte probak.

6.2. Proba hori egin ondoren, gai kalifikazioa lortu dutenak edo gaitasun-titulua edo baliokidea dutenak oposizio-probetara igaroko dira.

Zazpigarrena. Oposizioaren garapena.

7.2.1. Oposizio-faseko probarako deialdia deialdi bakarraren bidez egingo da, eta izangaiek Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte edo gidabaimena eraman beharko dute. Oposiziotik kanpo geratuko dira iragarritako egunean, orduan eta lekuan agertzen ez diren edo aipatutako dokumenturen baten bidez identifikatzen ez diren izangaiak.

7.2.2. Oposizio-faseko proba oinarri honetan adierazitakoa izango da, eta deialdiaren II. eranskineko gai-zerrendan jasotako gaiei buruzkoa izango da.

Gai guztiak deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoen araudiaren arabera eskatuko dira.

Hautaprobak irauten duen bitartean, eskaeran hala eskatu duten eta desgaitasunen bat aitortua duten izangaientzat proba egiteko beharrezko egokitzapenak eta denborak ezarriko dira.

7.2.3. Oposizio-faseak honako proba hau izango du:

- Proba bakarra: deialdi honen I. eranskinean agertzen den gai-zerrendan jasotako gaiei buruzko galdetegi bati idatziz erantzun beharko zaio, test motako 50 galderarekin, eta galdera bakoitzari hiru erantzun emango zaizkio. Erantzun horietatik bakarra izango da baliozkoa.

Ariketaren gehienezko puntuazioa 50 puntukoa izango da. Gutxienez 25 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak kanporatuko dira.



GOIZUETAKO UDALA

7.2.4. Behin probaren kalifikazioa amaituta, epaimahaiak udal taulan eta web orrian argitaratuko du behin-behineko kalifikazioak dituzten izangaien zerrenda, eta 2 egun balioduneko epea irekiko du, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesdunek erreklamazioak egin eta balorazioei dagokienez beren eskubideen alde egokitze jotzen dutena alegatu ahal izateko.

Alegazioak aurkezteko epea amaituta eta, hala badagokio, horiek ebatzita, oposizio-faseko behin betiko emaitzak argitaratuko dira, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta.

Prozeduran parte hartzen duten pertsonen puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, epaimahai kalifikatzaileak horretarako egindako zozketa bakarraren bidez ebatziko dira.

Zortzigarrena. Epaimahaiaren proposamena

8.1. Kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak iragarki-oholean eta Goizuetako Udalaren web orrian argitaratuko du lortutako puntuazioaren arabera gaingidutakoen zerrenda, eta Goizuetako Udaleko alkatetzari bidaliko dio, onar dezan, espediente osoarekin batera.

8.2. Hautagaien zerrendak deialdiaren hurrenkeraren arabera onartu aurretik, azterketa medikoa egingo zaie desgaitasuna egiaztatu duten pertsonen, lanposturako gaitasuna duten zehazteko.

Bederatzigarrena. Izangaien zerrenda eta deialdia.

9.1. Hautaketa-prozesuaren espediente osoa jaso ondoren, puntuazioaren arabera zerrenda onartuko da alkatetzaren ebazpen bidez. Zerrenda hori udal-taulan eta web orrian argitaratuko da.

9.2. Gaingidutako izangaiei dei egin ahal izango zaie, Goizuetako Udalean sortzen diren beharren arabera, deialdi honetako oinarrietan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Arau honetan aipatzen den zerrendan agertzen diren izangaiei dei egiteko, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikuluan eta hurrengoetan, deialdi honen oinarrietan eta aplikagarri diren gainerako araudietan ezarritakoa beteko da.



GOIZUETAKO UDALA

Deialdia egiteko, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzupeko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren Zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoa hartuko da kontuan. Horretarako, % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna aitortua duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute, horretarako organo eskudunak emandako jatorrizko agiria aurkeztuz, edo kopia konpultsatua edo behar bezala kautotua aurkeztuz, indarreko legeriaren arabera.

Era berean, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren Hogeita Zazpigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoari jarraituko zaio, eta, horretarako, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek beren izaera egiaztatu beharko dute.

Deitutakoek deialdi honetako 2. oinarrian eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak hautaketa-prozeduratik kanpo geratuko dira Alkatetzaren ebazpen bidez, eta deialdiko parte-hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte.

Ez da beharrezkoa izango agiri originalak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztea, eta dokumentu horien fotokopia sinpleak aurkeztu ahal izango dira.

Hala ere, Administrazioak edozein unetan eskatu ahal izango ditu aurkeztutako dokumentazioaren jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak.

Hamargarrena. Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda kudeatzeko arauak.

1.- Lokalizazioa errazteko, izangaiek harremanetarako telefono bat jakinarazi beharko dute gutxienez, baina horrez gain, harremanetarako beste telefono batzuk edo posta elektronikoko helbide batzuk ere jakinarazi ahal izango dituzte, eta informazio hori etengabe eguneratuta eduki beharko dute.

2.- Oro har, kontratu bat telefonoz eskaintzen zaion pertsona bakoitzari gutxienez hiru ahalegin egingo zaizkio, berak emandako harremanetarako bitartekoen bidez, bi eguneko epean.

3.- Deialdi bakoitza jasota geratuko da, eta deialdiaren inguruabarrak, data eta ordua adieraziko dira.

Izangaiarekin harremanetan jarri eta kontratazio-eskaintzari erantzuten ez badio, uko egiten diola ulertuko da, eta 9.3 atalean xedatutakoa aplikatuko zaio.

4.- Izangaia aurkitu ezin denean, zerrendako hurrengoarekin edo hurrengoekin harremanetan jarriko da, eskainitako lanpostua bete arte.



GOIZUETAKO UDALA

Harremanetan jarri ezin izan diren pertsonen dagokien zerrendan jarraituko dute.

5.- Aldi baterako kontratazioen hasierako iraupena hiru hilabetekoa edo txikiagoa bada, edo lanpostua premiaz bete behar bada eta ezin bada bi eguneko epea itxaron aurrez ezarritako deialdietarako, lehen izangai erabilgarriari eskainiko zaio, baldin eta, artikuluko honetako 3. paragrafoan aurreikusitakoa bete beharrik gabe, harekin harremanetan jartzea lortzen bada eta berehala lanean hastea onartzen badu.

6.- Kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste lanpostu bat betetzeko kontrataziorik eskainiko, deialdia beste lanpostu bati dagokion beste zerrenda batetik egiten ez bada.

7.- Deialdietarako oro har xedatutakoari kalterik egin gabe, izangai batek aldi baterako kontratu baten ondorioz deialdi honen esparruan zerbitzuak eman edo kontratazioen bat egin badu, eta kontratua amaitu eta hurrengo 15 eguneko epean beste behar bat sortzen bada, Administrazioak kontratua eskainiko dio izangai horri, betiere, deialdi berria egiteko unean, honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Hautagaia deialdia egiteko unean indarrean dagoen zerrenda batean egotea.

b) Kontratuari uko egin zaiolako amaitu ez bada kontratua.

8.- Lanaldi partzialeko aldi baterako kontratazioetan, lanaldia osatzeko ahalegina egingo da, lanpostu mota berean bete beharreko beste premia batzuk badaude, betiere hori posible bada bete beharreko zerbitzuetarako eta interesdunaren adostasuna badago.

9.3.-Amatasunagatiko edo adopzioagatiko lizentzien deialdia.

Amatasunagatiko edo adopzioagatiko lizentziarako ezarritako epearen barruan egon eta kontratu bat sinatzeko deitzen zaien eta onartzen duten pertsonen kontratua gordeko zaie lanpostuan benetan hasi arte, eta une horretan sinatuko da kontratua.

Kontratua onartu ahal izateko, aurreikusitako iraupenak lanpostuan benetan hasteko aukera eman behar du.

Amatasunagatiko edo adopzioagatiko lizentziarako ezarritako aldia amaitzen den



GOIZUETAKO UDALA

egunean hasiko da lanean, edo lehenago, langileak hala eskatzen badu, betiere amarentzat ezarritako erditzearen ondorengo nahitaezko atsedenaldia errespetatuz.

9.4.- Kontratazio-eskaintzari uko egitea.

9.4.1.- Izangairen batek eskainitako lanpostuari uko egiten badio, dagokion zerrendako azken postuan geratuko da, salbu eta honako egoera hauetakoren batean dagoela egiaztatzen badu; kasu horretan, zerrendan jarraituko du:

a. Indarrean dagoen administrazio- edo lan-izendapen edo -kontratu baten ondorioz behartuta egotea.

b. Amatasun, aitatasun, adopzio edo harreragatik lizentzia-egoeran egotea, edo aldi baterako ezintasun-egoeran egotea. Arrazoi horregatik kontratu bati uko egiten diotenek ezin izango dute berriro prest egon uko egitea justifikatu zuen egoera amaitu dela behar bezala egiaztatzen duten arte.

c. 3 urtetik beherako seme edo alaba bat zaindu behar du, bai berezkoa denean, bai adoptatua denean. Arrazoi horregatik kontraturen bati uko egiten diotenek ezingo dute berriro prest egon uko egin diotenetik gutxienez hilabete igaro arte, salbu eta uko egitea eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.

d. Odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailarainoko senide bat bere ardurapean izatea, baldin eta, adinagatik, istripuagatik edo gaixotasunagatik, bere kabuz baliatu ezin bada. Arrazoi horregatik kontraturen bati uko egiten diotenek ezingo dute berriro prest egon uko egin diotenetik gutxienez hilabete igaro arte, salbu eta uko egitea eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.

e. Norberaren ezkontza edo antzeko egoera, Bikote Egonkorren Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Legearen arabera, baldin eta eskainitako kontratua hasi aurreko edo hurrengo hamabost egun naturalen barruan badago.

f. Behar bezala aitortutako desgaitasun-izaera izatea, eta desgaitasunaren ezaugarriek bateraezin bihurtzea kontratua eskaintzen den lanpostuaren baldintza espezifikoekin.

9.4.2.-Aurreko apartatuan jasotako kasuetan, f) letran izan ezik, izangaiek zerbitzuak emateko prest daudela jakinarazi beharko dute. Jakinarazpen hori egiten ez den bitartean, izangaia prest ez dauden egoeran egongo dira eta ez zaie lanposturik eskainiko sartuta dauden zerrendetako batean ere. a), c) eta d) idatz-zatietan jasotako



GOIZUETAKO UDALA

kasuetan, gertaera eragile bera bi aldiz bakarrik erabili ahal izango da justifikazio-kausa gisa.

9.4.3.- 9.4.1 atalean zerrendatutako egoeraren batean dauden pertsonak agiri bidez eta modu frogagarrian egiaztatu beharko dute, uko egiten dioten lanpostua eskaini zaien egunetik zenbatzen hasita 7 egun naturaleko epean; kasu horretan, uko egiteko unean izangaien zerrendan zuten leku berean jarraituko dute.

9.5.- Zerrendako azken tokira jaistea

Zerrendako azken postuan geratuko dira honako kasu hauetakoren batean dauden izangaiak:

a) Izangaiari egotz dakioken arrazoiaren batengatik dagokion kontratua ez sinatzea, deialdiaren ondorioz lanpostua onartu ondoren.

9.6.- Zerrendetatik kanpo uztea

Deialdia eragin duen zerrendatik kanpo geratuko dira honako kasu hauetakoren batean dauden izangaiak:

a) Probaldian kontratua deuseztatu bazaio.

b) Lanpostua uztea.

c) Kontratua gerora sortutako arrazoiengatik azkentzea, kontratatutako pertsonak lanpostua betetzeko gaitasunik edo egokitzapenik ez duelako, lanpostuari esleitutako eginkizunak eraginkortasunez betetzea eragozten duen errendimendu nahikorik ez duelako.

d) Sinatutako kontratuari uko egitea.

e) Diziplina-zehapenagatik kontratua azkentzea.

9.7. – Lan-kontratuak.

Deialdiaren xede den lanposturako izangaiei aldi baterako kontratua eskainiko zaie. Kontratu horren iraupena izandako beharraren arabera izango da, eta abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren eta hura garatzeko araudiaren mende egongo da.

Hamaikagarrena. Errekurtsoak.

Epaimahai kalifikatzaileak emandako egintza eta ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio deialdia egin duen udal-organoari, hilabeteko



GOIZUETAKO UDALA

epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Deialdi honen, bere oinarrien eta horiek aplikatzeko egintzen aurka, epaimahaitik ez badatoz, honako errekurtsio hauetako bat aurkez daiteke:

- a) Berraztertzeako errekurtsioa, egintza eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegian, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aurrera.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Jarritako edozein errekurtsio jartzea eta ebaztea web orrian argitaratuko dira, hautaketa-prozesu honetako interesdunei jakinarazteko eta epatzeko.

Epaimahai kalifikatzailearen egintza eta ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio organo deitzaileari, hilabeteko epean, errekurritzen den aplikazio-egintzaren erabakia edo jakinarazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hamabigarrena. Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa.

Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna: Goizueta Udala, Herriko Plaza 4-1goa (P.K. 31754)

Helburua: Enplegu-deialdiak kudeatzea.

Oinarri juridikoa: DBEO: 6-1-a artikulua, hautaketa-prozesuan parte hartu nahi duen pertsonaren baimena. DBEO: 6-1-c artikulua, legeko betebeharrak bat betetzea.

Datuak gordetzeko denbora: Datuak aipatutako helburua betetzeko behar den denboran gordeko dira eta Goizueta Udalak tratamenduaren ondoriozko erantzukizunak dituen bitartean gordeko dira. Era berean, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean ezarritako kontserbazio-arauak bete behar dira.

Datuen hartzaileak: Datuak epaile eta auzitegiei laga dakizkieke, indarrean dagoen legeria betez.



GOIZUETAKO UDALA

Prozesuaren emaitzak Goizuetako Udalaren egoitza elektronikoa argitaratuko dira, deialdian adierazten den bezala.

Hautaketa-prozesuaren emaitzari buruzko informazioa web-orrian egongo da eskuragarri prozesua indarrean dagoen bitartean.

Eskubideak: Interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, zehatzak ez badira zuzentzeko, eta datuak ezeztatzeko, lehenengo atalean adierazitako helbidera joz.

Era berean, interesdunek erreklamazio bat aurkez dezakete Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan, Jorge Juan kaleko 6. zenbakian, 28001 zenbakian (Madril) edo www.agpd.es helbide elektronikoa.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

I. eranskina: Eskaera-inprimakia/eskabide-orria

II. eranskina. Gai-zerrenda

1. gaia. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: prozedurako interesdunak, jarduteko gaitasuna eta interesdunaren kontzeptua, administrazio-prozeduran interesdunen ordezkaritza, identifikazioa eta sinadura. Herri-administrazioen jarduera, arau orokorrak, erregistroak, administrazio-isiltasuna, epe-mugak eta epeak (zenbaketa). Administrazio-egintzak: Betekizunak. Eraginkortasuna, jakinarazpena. Administrazio-prozedura erkidea. Bermeak. Faseak. Administrazio-errekurtsoak: printzipio orokorrak, gora jotzeko errekurtsua eta berraztertze errekurtsua.

Artikuluak: 3tik 5era; 9tik 46ra; 53tik 95era; 112tik 124ra

2. gaia. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena: abstentzioa eta errekusazioa. Zehatzeko ahalaren printzipioak. Herri-administrazioaren eta herri-administrazioen zerbitzura dauden agintari eta langileen erantzukizuna. Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa.

Artikuluak: 23tik 46ra

3. gaia. 11/2005 Foru Legea, dirulaguntzei buruzkoa: atariko titulua; I. titulua; II. titulua;

Artikuluak: 1 tik 33 bis-ra

4. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak: II. titulua: Udalerria. I. kapitulua: Lurraldea eta Biztanleria. II. Kapitula: Antolaketa. III.



GOIZUETAKO UDALA

kapitulua: Eskumenak. V. Titulua: Toki-erakundeen xedapen komunak. I. kapitulua: Funtzionamendu-araubidea. IV. kapitulua: Herriarren informazioa eta parte-hartzea.

Artikuluak 12tik-38ra; 46tik-54ra; 69tik-72ra artikuluak

5. gaia. 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa: I. titulua: Toki entitateen antolaketa eta administrazioa. III. Titulua: Nafarroako Toki Entitateen funtzionamendu-araubidea. IX. Titulua: Nafarroako Toki Entitateen jardunen prozedura eta araubide juridikoa, aurkaratzea eta kontrola: Bereziki, gora jotzeko errekurtsua Nafarroako Administrazio Auzitegian (urriaren 18ko 279/1990 Foru Dekretua).

Artikuluak: 6tik 57ra; 73tik-96 ter-era; 317tik-351ra

6. gaia. Windowsen oinarritzko funtzioak: mahaigainaren zatiak eta funtzionamendua (ikonoak, zuzeneko sarbideak), hasierako barraren eta Windowseko arakatzaillearen funtzionamendua.

7. gaia. Wordeko oinarritzko nozioak: testua sartzea eta biltegitratzea, karaktere-formatua, paragrafoa eta dokumentua, taulak eta taulen formatua, testu-zuzenketa.

8. gaia. Exceli buruzko oinarritzko nozioak: haren elementuak ezagutzea (liburuak, orriak, gelaxkak), oinarritzko formulak sartzea, grafikoak egitea, formatua ematea.

Goizuetan, 2026ko abuztuaren 7an.

ALKATEA.

Unai Miranda Berroeta